

GIZA TALDEA

2017-2022 aldirako IZSaren Hitzarmen Kolektibo berria 2016ko abenduaren 23an sinatu zen, eta 2017ko azaroaren 23an kaleratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (226. zenbakiko NAO). 2022an, Batzordeak salatu egin zuen Hitzarmena, eta urte horretako bertako urrian hasi zen hitzarmen hori ordeztuko duena negoziatzeko. Bien bitartean, eta 2. artikulua aplikatuta, IZSaren 2017-2022 Hitzarmen Kolektiboa indarrean dago aurreraeraginarengatik.

2023an, eta Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legea aplikatzeko, hasiera batean aplikatu zen soldatak % 3 igotzea. 2024an, 2023ko urtarilaren 1eko eraginarekin, % 0,5 ordainduko da, 2023tik pendiente zegoena, eta, hartara, igoera osoa % 3,5ekoa izango da.

2023ko lanaldiak 216 izan dira (egunekoak), eta, guztira, 1.592 ordu urteko.

Enpresak langileei eskaintzen dizkien neurri batzuk daude, arreta sozialerako neurriak, hain zuzen, hitzarmen kolektiboan jasota dauden lizentziez eta baimenez gain:

Prestazio sozialak	Deskribapena
Pentsio-plana	Sari zehaztua, urte-sari aldakorren kopurua dakarrena, zenbait parametroren arabera kalkulatuak, eta erretiro-, heriotza- eta baliaezintasun-kontingentziak estaltzen dituena.
Istripu-asegurua	Istripuen estaldura.
Erretiro partziala	Erretiro Plana, Hitzarmen Kolektiboan jasoa.
Prestazio ekonomikoak	Soldataren osagarria, gaixotasun eta istripuagatikoa, soldataren % 100a osatu arte. Nomina-aurrerakinak. Diru-laguntzak, prestakuntza hartzeko.